



2022ko ABENDUAREN 5ean EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko abenduaren 5eko 11:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidente Beatriz Artolazabal Albéniz andrea ordeztuz. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Nerea Urien Azpitarte andrea, Administrazio eta Finantzaketako sailburuordea. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Jone Miren Fernández andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Eva Juez Garmendia andrea. Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko bokala. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Iñigo Eguren jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Alberto Cereijo Fernández jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Alazne Camiña andrea eta Izaskun Astondoa andrea –

Koordinazio Teknikoko arduraduna eta eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna, hurrenez hurren– bertaratu dira.

Sarrera

Jose Antonio Rodriguez Ranz jaunak hitza hartu du bertaratuei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. *2022ko azaroaren 14an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2022ko proiektuetarako laguntzen deialdia emateko ebazpena aldatzeko proposamena onartzea*
3. *2022ko genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko lankidetz-erakundeentzako laguntzen deialdia emateko ebazpenari buruzko informazioa (abenduarien 2an –ostirala– argitaratuko da).*
4. *4 lanpostu finkatzeko lehiaketa, enplegu publikoaren behin-behinekotasunari buruzko 20/2021 Legea betez.*
5. *Galde-eskeak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

2022ko azaroaren 14ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

2. 2022ko proiektuetarako laguntzen deialdia emateko ebazpena aldatzeko proposamena onartzea

2022ko lankidetz-proiektuen deialdiaren erakunde onuradun batek laguntzari uko egin dionez, uko-egite hori onartzea eta, horrenbestez, emandako dirulaguntzen eranskinaren aldaketa onartzea proposatu da. Alazne Camiñak hartu du hitza aldaketa azaltzeko.

2022ko garapenerako lankidetz-proiektuetarako laguntzen deialdiari lotutako laguntzak onartzeko 10 eguneko epea amaitu ondoren, Paz con Dignidad elkarteak PRO-2022K1/0018 kodean duen proiektuari buruzko 278.178,81 euroko dirulaguntza ez onartzeko asmoa jakinarazi du. Uko-egite horretan erakundeak atzerriko langileen partidan izandako murrizketa aipatzen du, besteak beste. Izan ere, proposamen horretako atzerriko langileen memoria irakurri ondoren, eskaerak teknikoki aztertze

eta balioesteko ardura zuen lantalde teknikoak partida hori behar bezala justifikatuta ez zegoela iritzi zion.

Horrenbestez, Paz con Dignidad elkartearen uko-egitea onartzea proposatu da, erakunde hori zerrendatik baztertzeko emandako ebazpenaren I. eranskina aldatuz, eta, horrekin batera, Medicus Mundi Araba eskatzailearen PRO-2022K1/0046 espedientean emandako dirulaguntza zuzentzea, elkarte hori Afrikan banatu beharreko funtsen galbahean geratu baitzen, dirulaguntza 590.300,06 eurora eramanez guztira, eta, azkenik, I. eranskina aldatzea 173.949,39 euroko dirulaguntza sartzeko Zabalketa eskatzaileari PRO-2022K1/0070 espedientean Saharaz hegoaldeko Afrikan egikaritzen diren proiektuetarako funtsen % 20ko erreserba esleitzeko, deialdi horren dekretuak ezartzen duenez.

Adierazi da Medicus Mundi Araba zein Zabalketa elkarteek laguntza berriz onartu behar dutela eta, Zabalketak laguntza onartzen badu, epe bat izango da proiektuarentzako aurrekontu-egokitze bat proposatzeko.

Jose Antonio Rodriguezek galdetu du zer gertatuko litzatekeen Zabalketa elkarteak laguntza onartuko ez balu, eta Paul Ortegak erantzun du ebazpen-proposamen berri bat planteatu beharko litzatekeela, zenbateko hori Zabalketa elkartearen atzetik hurrenen dagoen erakundeari proposatuz, baremazio teknikoaren arabeko puntuazio-ordenari jarraikiz.

Josu Urrutiak proposatu du dei bat egitea Zabalketari egoera azalduz, aldaketa-prozesua ez aldatu behar izateko elkarteak laguntza onartzen ez badu. Era berean, uste du gogoeta bat egin behar dela Koordinakundearen, GGKEaren eta eLankidetzaren artean, atzerrian dagoen pertsonaren figurari dagokionez. Bere ustez, figura horrek testuinguru oso konplexuetan laguntzen du, eta gehiago zaindu beharko liriateke eta gehiago hartu beharko liriateke kontuan. Paul Ortegak adierazi duenez, administrazio-prozeduraren arabera eLankidetzak ezin du dei hori egin ebazpena Buletinean argitaratu aurretik. Dena den, aurreikusita dago emakida aldatzeko ebazpena argitaratu eta berehala erakundearekin harremanetan jartzea.

Oihana Etxebarrietak galdetu du ea aukerarik egongo litzatekeen Paz con Dignidad elkartearekin berriz formulatzeko. Alazne Camiñak erantzun du behin betiko emakidea ebazpena denez, elkarteak ez zuela aurrekontua berriz formulatu eta emandako laguntzara egokitzeko aukerarik. Bestalde, elkarteak laguntzari azaroaren 25eko gutun bidez uko egin dionez, bere eskubideei ere uko egin die administrazio-prozeduraren ikuspuntutik.

Iñigo Egurenek atzerrian dauden langileen murrizketari dagokionez azaldu duenez, horren inguruko eztabaidarik gabe partidak murrizteko eLankidetzaren politikak eragin handia du elkarteetan.

Alberto Cereijok esan du Zabalketa elkartearen proiektua ia % 50ean murriztuko dela, eta, hori horrela, oso zaila izango litzaioke murrizketa horrekin % 100arekin lortzen duen puntuazio bera lortzea. Alazne Camiñak argitu du hori horrela dela, proposamenen baremazio teknika hasierako aurrekontu totalei jarraikiz egiten delako. Tratu-desberdintasunik ez eragiteko, baremazio horrek agindu behar du gainerako diru-kopurua emateko, eskatutako aurrekontua baino txikiagoa den diru-kopurua esleitzen zaion edozein espediente egoera horretan egongo bailitzateke. Hori esanda, Zabalketa elkarteari argitu beharreko gaietako bat da berriz formulatzen duenean hasierako proposamenean planteatutako helburu eta emaitzak beteko direla bermatu behar duela, proiektuaren puntuazioa ez hutsaltzeko.

Jose Antonio Rodriguezek proposatu du aldaketa onartzea eta atzerrian dagoen langilearen figurari buruzko debatea beste gune espezifiko batera helaraztea, lankidetzaren agenteekin batera. Horrenbestez, bertaratuen gehiengoaren bidez eta 4 abstentziorekin onartu da proposamena.

3. 2022ko genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko lankidetzaren erakundeentzako laguntzen deialdia emateko ebazpenari buruzko informazioa.

Alazne Camiñak azaldu duenez, 12 proposamen finantzatzea espero bazen ere, 10 eskaera baino ez dira aurkeztu, eta 10 horietatik 9 onartu dira eta 1 baztertu egin da baremazio teknikoko 50 puntuko gutxienera iritsi ez delako. Onartutako proposamenen artean 6 Diagnostiko eta Planerako dira eta beste 3ak Ezarpen eta Ebaluaziorako.

Era berean, nabarmendu du aurtengo deialdian prozesu hori hasiko duten erakunde berriak daudela (Amekadi, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, Munduko Landa Foroa, Calcuta Ondoan) eta kanpo-dinamizatzaille berriak (Sorginlore Gizarte Elkartea, Hiruki Larroxa, Fil al monsieur agulla, Errotik), lankidetzako euskal agenteek erreminta horrekin duten interesaren adierazgarri.

Alberto Cereijori atentzioa eman dio iaz funtsak agortu zirelako laguntzarik lortu ez zuten erakundeak deialdi honetara ez aurkeztu izana. Galdetu du ea datorren urtean erakundeei aurretik galdetu ahal zaien aurkezteko asmorik duten funtsak planifikatzeko. Alazne Camiñak erantzun du urtero galdetzen zaiela alde zaurretik eta une horren eta deialdia egitearen unearen artean erakundeen errealitatea edo haien lehentasun estrategikoak aldatu egiten direla.

Josu Urrutiak adierazi du pena dela diru hori Ogasunera itzultzea.

4. 4 lanpostu finkatzeko lehiaketa, enplegu publikoaren behin-behinekotasunari buruzko 20/2021 Legea

Izaskun Astondoak adierazi du 4 lanpostu hartzen dituela eraginpean 20/2021 legeak eta urtea amaitu baino lehen, legeak ezarritakoari jarraikiz, deialdia eta oinarriak argitaratuko dituztela merezimenduen lehiaketarako. 2 lanpostu administrariarenak dira, bat teknikari informatikariarena eta beste bat lankidetzako teknikariarena. 20/2021 Legearen aplikazioak ez ditu gainerako lanpostuak eraginpean hartzen.

Paulek gehitu du Funtzio Publikoak finkatzen duela eta etorkizunean aldi baterako kontratuekin estalitako lanpostuak aztertu nahi direla.

Ez dago komentariarik, aho batez onartu da.

5. Galde-eskeak

Jose Antonio Rodriguezek galdetu du bilerari gehitu nahi zaion zerbait ba ote dagoen. Komentariarik ez dagoenez, urtea agurtzeko eta jai zoriontsuak opatzeko baliatu du aukera, eta bilkura amaitutzat eman da 11:40an.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Jose Antonio Rodríguez Ranz, Giza
Eskubide, Memoria eta Lankidetzako
sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria